



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek joan dan urteko puntako orduko ordutegiak berreskuratzeko eskatu deusie Metro Bilbaori

Bilbon, 2013ko zezeilaren 22an

Gaur burutu dan Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea, gaur egun Metro Bilbaok eskaintzen dauen zerbitzuari buruzko monografikoa izan da, urtarrilaren 9tik aurrerako aldaketak dirala-ta maiztasun eta ordutegi barriak indarrean sartu ziranetik. Bizkaiko Ganbarak, Bizkaiko Alderdi Popularrak (PP) aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena onartu dau. Proposamen horretan, aurreko zerbitzu koadrora itzultzea eskatzen da, hau da, goizeko puntako ordua goizeko 07:00etatik 10:00etara luzatzen zan zerbitzu koadrora, gaur egun baino ordu erdi gehiago.

PP-k, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskea onartu dau. Zuzenketa-eske horretan adierazoten da zerbitzuaren gainerakoaren aldaketea eskatu aurretik, une honetan Metro Bilbaoren kudeatzaile barriak egiten ari diran azterlanaren emaitzak itxaron beharko dirala. Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako diputatuak, adierazo dauenez, azterlana martxoaren bukaerarako egongo da amaituta. Azterlan horretan oinarrituta egingo dan zerbitzu proposamena funtsezkoa izango da 2014ko ordutegiak jarteko.

Ekimena PP-ren eta EAJ-PNV-ren botoakaz onartu da, eta Bildu eta Socialistas Vascos (PSE-EE) taldea abstenitu egin dira. Bertan, Foru Aldundiari eskaerea egiten joko, bidaiari gehieneko orduetan “baztertutako zerbitzuak berehala jarri daiazala martxan barriro”, izan be, murrizketa horrek “pilaketak sortzen ditu nasetan eta arriskuan ipinten dau erabiltzaileen segurtasuna”, Jesús Isasi popularraren berbetan. Jesús Isasik adierazo dau, baita, hori dala-ta, segurtasun langile gehiago egoten dala.

Nerea Ahedok, EAJ-PNV-k batzordean dauen bozeroaleak, zein Itziar Garamendik, PP-k eskatuta, Metro Bilbaoko Administrazio Kontseiluko kide legez, ganbaran egon dan Herri Lan eta Garraioetako diputatuak, Batzar Nagusietan adierazo dabe lur azpiko trenaren zuzendaritza barria, lehengo kudeatzaileek “ezarritako” ordutegien maiztasunaren murrizketea aztertzen ari dirala, erabagi hori hartzeko zergaitiak zerbitzuaren errealidadeagaz bat datoza egiaztetako.

Ildo horri jarraituta, Diputatuak azaldu dau, gaur egungo Metro Bilbaoko zuzendaritzak eskaini deusazan datuak kontuan izanda, maiztasunak murrizteko eta egunean 45 tren inguru kentzeko (PSE-ren berbetan 41 tren izan ziren, eta PP-ren eretziz, barriz, 50 zirkulazino), aurreko zuzendaritza taldeak esan ebala erabagi horri esker urtean 748.000 euro aurreztuko zirala; 429.000 euro gidaritzan egin beharreko ordu gitxiagoen ondorioz eta 318.000 euro energiaren kontsumoko eta mantentze lanetako aurrezpenak zirala-ta.

Bilduk, gainerako talde guztiek baztertu daben bere Arauz Besteko Proposamenaren bitartez, Metro Bilbaok 2012ko urtarrilaren 9an eskaintzen eban zerbitzua berreskuratzeko eskatu dau. Koalitzino abertzaleak, gainera, lur azpiko trenaren zuzendaritzak, zerbitzu bereziak eskatzen dituen ekitaldien aurrean “zolitahun eta azkartahun handiagoz” jokatu behar dauela be eskatu dau, eta “Metro Bilbaorako beste aurrezpen neurri batzuk aztertu daitezala, erabiltzaileentzat zerbitzu murrizketarik ekarriko ez daben neurriak, esaterako goi zuzendaritzaren soldadak jeistea, kaleratzeagaitiko neurribako kalte-ordainak, etab”. Garamendik adierazo dau metroaren kudeatzaile barriek hartutako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

lehenengo neurria zerbitzu bereziak barriro martxan jartea izan dala (Athletic taldearen partiduak, Inauteriak...) eta puntako orduak ez diran orduetako zirkulazinoen murrizketea aztertzea. Murrizketa hori “zerbitzuaren %10ekoa da”, astegunetako goizeko 10:00etatik gaueko 21:00ak arte.

PSE-EE taldeak argitu gura izan dau zerbitzuaren murrizketa horrek ez dauela eraginik puntako orduetan –gaur egun goizeko 07:00etatik 09:30etara– eta 2012an eskaintzen zan zerbitzuagaz dauen aldea, tren baten eta hurrengoaren arteko denpora tartea, 20 segundo gehiagokoa “baino” ez dala, eta beti be puntako orduetatik kanpoko ordutegian. Joaquín Colmenero batzarkide sozialistak, zerbitzu bereziak kentzea aurreko kudeatzaileen “akatsa” izan zala onartu dau, baina ez ohiko zerbitzua ezarteko beharrezkoa dala “ekitaldiek daukien asistentzia parametroak kontuan izatea”.

2013ko TARIFAK

Batzordeak baztertu egin dau, EAJ-PNV, PSE eta PP taldeen kontrako botoakaz, Bilduk aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Bizkaiko Batzar Nagusietatik eskaria egiteko Bizkaiko Garraio Partzuergoko kudeatzaile barriei, 2013. urtean prezioak izoztuta mantendu dagiezan. Aitor Torrek, Bilduko taldeburuordeak neurri hori eskatu dau “zuzena dalako BGP-CTB-ak garrikoa estutzea, joan dan urtean erabiltzaileek egin daberen moduan”. Bilduren eretxiz, garraio txartelen prezioaren igoeraren aurrean, Torrek esan dauenez “Hilekoa %7 baino gehiago garestitu zan”, eta uztailean izandako BEZ-aren igoeraren aurrean, hiritarrek izozketa “behar eta merezi” dabela, eta gehiago oraindino kontuan izaten badogu metroak txartelen salmentaren bitartez lortzen dauen auto-finantzaketa %80koa dala, beste metro askok lortzen dabena baino askoz gehiago. Madrilgo eta Valentziako metroak, adibidez, ez dira %50era heltzen.

Gainerako taldeek esan dabe “goizegi” dala eztabaida hori egiteko, oraindino ez diralako ezagutzen metroaren kudeatzaile barriek tarifen inguruan daukiezan asmoak. “Datuak daukaguzanean gure eretxia emongo dogu”, esan dau Joaquín Colmenero sozialistak. Nerea Ahedok (EAJ-PNV) gai horreetan, “zuhurtzia” eskatu dau, alor horretan hartzen diran erabagiak “beste gai batzuetan be eragina izango dabelako”. EAJ-PNV-ren eretxiz, prezioetan bi erispide nagusitu behar dira: ohiko erabiltzaileak saritzea eta, igoera egon ezker, KPI-a baino altuagoa ez izatea. PP-ko Jesús Isasik, “Gipuzkoan eskatzen ez dauena” hemen eskatzen dauela aurpegiratu deutso ezker abertzaleari, Donostiako autobusaren prezioa “%5 igoen da-ta”.

Batzarretako talde guztiek argi ikusi daberen gauza bakarra, metroa ez dala “erasorako arma” legez erabili behar izan da, eta garai barri honetan “norgehiagoka politikotik” kanpo geratu behar dala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Comisión de Obras Públicas y Transporte

Las Juntas Generales solicitan a Metro Bilbao que recupere los horarios en hora punta del año pasado

Bilbao, a 22 de febrero de 2013

La Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales celebrada hoy en Bilbao ha resultado un monográfico sobre el servicio que ofrece en la actualidad Metro Bilbao después de los ajustes producidos desde que el pasado 9 de enero entraran en vigor las nuevas frecuencias y horarios de este transporte. La cámara vizcaína ha aprobado una Proposición No de Norma del Grupo Popular Vizcaíno (PP) en la que se solicita la vuelta al cuadro de servicio anterior cuando la hora punta de mañana se extendía desde las 7 hasta las 10 de la mañana, treinta minutos más que en la actualidad.

El PP ha aceptado una enmienda del Grupo Nacionalistas Vascos (PNV) para que la modificación del resto del horario se mantenga a la espera de los resultados del análisis que actualmente realizan los nuevos gestores de Metro Bilbao y que estará terminado a finales de marzo, según la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, propuesta de servicio que será clave para determinar los horarios del año 2014.

En la iniciativa aprobada con los votos del PP y el PNV y la abstención de Bildu y el Grupo Socialistas Vascos (PSE-EE), se insta a la Diputación foral a que solicite a Metro Bilbao la “inmediata puesta en marcha de los servicios retirados” en hora punta, ya que esta supresión “provoca situación de aglomeración en los andenes y pone en riesgo la seguridad de los usuarios”, según el popular Jesús Isasi, quien ha detectado un aumento de los empleados de seguridad en los andenes por este motivo.

Tanto la portavoz del PNV en la comisión, Nerea Ahedo, como la Diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, que comparecía en la cámara a petición del PP como miembro del Consejo de Administración de Metro Bilbao, han anunciado en las Juntas Generales que la nueva dirección del suburbano está analizando la reducción de frecuencias horarias “impuesta” por los anteriores gestores, para contrastar que los datos sobre los que se tomó esa decisión se corresponden con la realidad del servicio. Las frecuencias “se tienen que adecuar a las necesidades reales y, por eso, esperamos el análisis porque no lo tenemos claro”, ha dicho Ahedo.

En esa línea, la Diputada ha explicado que, a tenor de los datos que le ha ofrecido la actual dirección de Metro Bilbao, la directiva anterior argumentó para reducir las frecuencias y retirar así alrededor de 45 trenes por día (41 trenes según el PSE y 50 circulaciones según el PP) que esta decisión iba a permitir obtener un ahorro económico de 748.000 euros al año: 429.000 euros por menos horas de conducción y 318.000 euros por ahorros en consumo energético y de mantenimiento. Garamendi ha confirmado que estos datos los sabe “ahora” y que la decisión de reducir el servicio público se hizo sin que se hiciera pública una justificación y sin su conocimiento. “Me enteré por la prensa”, ha reconocido.

PROPOSICIÓN DE BILDU



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Bildu solicitaba a través de su propia Proposición No de Norma, rechazada por el resto de grupos de la cámara, que Metro Bilbao debía recuperar el servicio tal y como se encontraba a 9 de enero de 2012. La coalición abertzale pedía además que la dirección del suburbano actuara con “mayor diligencia y previsión” ante acontecimientos que requieran de refuerzos especiales, y que estudien “otras medidas de ahorro que no supongan la merma de servicio al usuario, tales como la reducción de los salarios de alta dirección o indemnizaciones por despido desorbitadas”. Garamendi ha anunciado que la primera medida de los nuevos gestores del metro ha sido reponer precisamente los servicios especiales (partidos del Athletic, fiestas de Carnaval...) y analizar la disminución de las circulaciones en hora valle, que “supone un 10% del servicio” en una franja horaria que va desde las 10.00 a 21.00 horas, los días laborables. Por su parte, Ahedo ha dicho que los nuevos gestores ya “están ahorrando” al disminuir los cargos directivos y reducirse las cargas salariales en un 35%.

El PSE-EE ha querido aclarar que la disminución del servicio de la dirección anterior de Metro Bilbao no afecta a la hora “punta” –actualmente de 7 a 9.30 horas- y que la diferencia con respecto al servicio de 2012 es que el paso entre un tren y otro, aumenta “solo” en 20 segundos y en hora “valle”. El juntero socialista Joaquín Colmenero ha admitido que la eliminación de los servicios especiales fue un “error” de los gestores anteriores, aunque en este aspecto “se debe de tener en cuenta los parámetros de asistencia de los distintos eventos” para establecer un servicio extraordinario.

PROPUESTA DE TARIFAS 2013

Por su parte la comisión ha rechazado con los votos contrarios de PNV, PSE y PP, una Proposición No de Norma de Bildu para instar desde las Juntas Generales de Bizkaia a que los nuevos gestores del Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) mantengan los precios “congelados” durante este año 2013. El apoderado de Bildu Aitor Torre, ha argumentado esta medida porque “es de justicia que el CTB se apriete el cinturón como lo han hecho los usuarios el año pasado”. Bildu cree que ante la subida del precio de los billetes de transporte en 2012 -“el Mensual subió más del 7%” según Torre-, y la subida del IVA en julio, la ciudadanía “necesita y merece” una congelación, más si se tiene en cuenta que el suburbano “goza” de una autofinanciación del 80% con la venta de títulos, muy superior al de otros metros como Madrid y Valencia que ni siquiera alcanzan el 50%.

El resto de grupos ha coincidido en que el debate es “prematureo”, ya que todavía no se conocen las intenciones tarifarias de los nuevos gestores del suburbano. “Cuando tengamos los datos nos pronunciaremos”, ha dicho el socialista Joaquín Colmenero. Nerea Ahedo (PNV) ha pedido “prudencia” en estos temas, ya que las decisiones que se tomen en este sentido “van a influir en otras cuestiones”. Para la formación jeltzale, en los nuevos precios deben primar dos criterios: “premiar a los usuarios habituales y, de haber subida, que ésta no sea superior al IPC”. Por su parte, Jesús Isasi del PP ha recriminado a la izquierda abertzale el solicitar aquí “lo que no piden en Gipuzkoa”, cuando el precio del autobús en San Sebastián “subió un 5%”.

La única cuestión que ha quedado clara para todos los grupos junteros es que el metro no debe servir como “arma arrojadiza” y debe salir de la “confrontación política” para esta nueva etapa. Colmenero (PSE) se ha comprometido a hacer “oposición responsable”. Y el PNV le ha recogido el guante. “No queremos confrontación, ni que se juegue con el metro”, le ha respondido Jon Larrea (PNV).